Ekainak 16an, 500 mb-ko geruzan, mendebaldetik ekialdera ibar batek gurutzatu zuen penintsularen iparraldea, inguru horretan -18 °C-ko temperatura zuelarik (6.2 irudia).

Estazioa	Pilatutako max. (mm / 24h)	Ordu betean max. (mm / h)	Hamar minututan max. (mm / 10min)
Urkiola	56,8	36,7	23,6
Aixola	51,3	29,7	14,4
Aitzu	46,1	27,3	12
Elorrio	40	25,3	12,6

6.1 taula. Pilatutako prezipitazioa (mm) EAE-ko hainbat estaziotan 2008/06/16an.




Figura 6.1. Presión a nivel del mar el día 16/06/2008 a las 12 UTC.
6.1 irudia. Presioa itsas mailan, 2008/06/16 12etan UTC.




Figura 6.2. Geopotencial e isotermak a 500 mb, 16/06/2008 a las 12 UTC.
6.2 irudia. Geopotentziala eta isotermak 500 mb-etara, 2008/06/16, 12etan UTC.





Figura 6.3. Precipitación acumulada, máxima horaria y diezminutaria el día 16/06/2008. 6.3 irudia. Pilatutako prezipitazioa, ordu beteko eta 10 minutuko maximoa 2008/06/16an.



Precip. Máx (mm=1/m²)
23,6 14:00

Precip. Tot (mm=1/m²)
56,8

Figura 6.4. Precipitación acumulada el 16/06/2008 en la estación de Urkiola. 6.4 irudia. Pilatutako prezipitazioa Urkiolako estazioan 2008/06/16an.




Figura 6.5. Precipitación acumulada y nivel de la lámina de agua el 16/06/2008 en la estación de Aixola, Elorrio y Aitzu.
6.5 irudia. Pilatutako prezipitazioa eta ur-maila Aixola, Elorrio eta Aitzuko estazioetan 2008/06/16an.




Figura 6.6. Descargas eléctricas a las 14:20 y 15:00 UTC del 16/06/2008.
6.6 irudia. Deskarga elektrikoak 2008/06/16an 14:20 eta 15:00etan UTC.

NIEVE. 27-29 OCTUBRE.

Durante la primera mitad del lunes 27 se producen precipitaciones débiles, pero a lo largo de la tarde y noche con la llegada de un frente frío se producen chubascos débiles a moderados, que de forma local tienen carácter persistente. El martes 28 se registran chubascos débiles y moderados e incluso se producen tormentas ocasionales y acompañadas de granizo en la vertiente cantábrica. La cota de nieve se sitúa por debajo de los 1000 m, bajando ocasionalmente hasta los 800 m durante la noche. Esta jornada se registran precipitaciones frecuentes y abundantes, superándose en algunos puntos los 60 mm/24 h, como por ejemplo en Aranguren y Aitzu. Durante el día 29 la cota de nieve se mantiene durante gran parte de la jornada en torno a los 800-900 m, ascendiendo a últimas horas por encima de los 1500 m. Se producen precipitaciones débiles a moderadas, frecuentes durante la primera mitad del día, aunque los acumulados son menores, con máximos en torno a los 25-30 mm en zonas de la vertiente cantábrica (tabla 7.1).

En superficie, comienza el episodio con un anticiclón al oeste, situado en el Atlántico, y una borrasca al noreste, situada frente al litoral noruego, con un paso frontal frío durante la segunda mitad del lunes 27. A medida que avanza la semana, las altas presiones se retiran hacia el centro del océano y predominan en Europa las borrascas, formándose una baja en el Golfo de León durante el martes 28 y el miércoles 29 (figura 7.1).

En 500 mb, el martes y el miércoles estamos bajo una irrupción de aire frío de origen polar, extendiéndose en forma de vaguada por todo el oeste de Europa. La temperatura del nivel oscila entre los -20 °C y los -25 °C, con breves incursiones de aire más frío durante el miércoles 29 (figuras 7.2 y 7.3)

Estación	Precipitación 27/10/2008	Estación	Precipitación 28/10/2008
Altzola	25	Aitzu	62,5
Matxitxako	24,3	Aranguren	61,4
Zarautz	23,5	Ibai Eder	52,3
Ereñozu	21,8	Sodupe- Herrerias	52,1
Aizarnazabal	21,1	Altzola	51

Tabla 7.1. Precipitaciones en mm de algunas estaciones de la CAPV durante el 27 y 28/10/2008.

ELURRA. URRIAREN 27-29AN.

Hilak 27ko lehen partean, euri arina egin zuen, baina arratsaldean zein gauean fronte hotz bat iritsi zaparrada arin-ertainak bota zituen, zenbait tokitan iraunkorrak izan zirenak. Asteartean, hilak 28, zaparrada arin-ertainak errepikatu egin ziren, baina oraingoan ekaitzak jo eta txingorra ere bota zuen kantauri isurialdean. Elur kota 1000 m-tik behera kokatu zen, gaueko zenbait momentutan 800 m-ra kokatuz. Asteartean bertan, euri zaparraden ondorioz 60 mm baino gehiago pilatu ziren 24 ordutan, esate baterako Aranguren eta Aitzun. Hilaren 29an, elur kota 800-900 m-ra kokatu zen ia egun osoz, egunaren amaieran 1500 m-tik gora kokatuz. Egun honetan ere, prezipitazio arin-ertainak jaso ziren, batez ere iraunkorrak egunaren lehen partean. Euri pilaketak txikiagoak izan baziren ere kantauri isurialdeko zenbait tokitan 25-30 mm neurtu ziren (7.1 taula).

Lurrazaleko egoera aztertuz, Atlantikoan antizikloia kokatu zen eta Noruegako kostaldean, presio baxuak. Hilaren 27an arratsaldean fronte batek gurutzatu zuen lurraldea. Asteak aurrera egin ahala, presio altuak mendebalderantz urrundu ziren eta Europan depresioak nagusitu ziren, Leongo Golkoan hilaren 28 eta 29an depresio bat eratuz. (7.1 irudia).

500 mb-ko mailan latitude polarretako aire hotza sartu zen eta ibar forman Europa mendebalde osora hedatu zen, hilaren 28 eta 29an. Atmosferako maila horietan -25 °C eta -20 °C bitarteko tenperatura izan zen, asteazkenean, hilak 29, aire hotzagoa iritsi bazen ere (7.2 eta 7.3 irudiak).

Estazioa	Pilatutako prezipitazioa 2008/10/27	Estazioa	Pilatutako prezipitazioa 2008/10/28
Altzola	25	Aitzu	62,5
Matxitxako	24,3	Aranguren	61,4
Zarautz	23,5	Ibai Eder	52,3
Ereñozu	21,8	Sodupe- Herrerias	52,1
Aizarnazabal	21,1	Altzola	51

7.1 taula. Pilatutako prezipitazioa (mm) EAE-ko hainbat estaziotan 2008/10/27 eta 2008/10/28an.




Figura 7.1. Presión a nivel del mar el día 27 y 28/10/2008 a las 12 UTC.
7.1 irudia. Presioa itsas mailan, 2008/10/27 eta 28, 12etan UTC.




Figura 7.2. Geopotencial e isotermas a 500 mb, 27 y 28/10/2008 a las 12 UTC.
7.2 irudia. Geopotentziala eta isotermak 500 mb-etara, 2008/10/27 eta 28, 12etan UTC.




Figura 7.3. Geopotencial e isotermas a 850 mb, 27 y 28/10/2008 a las 12 UTC.
7.3 irudia. Geopotentziala eta isotermak 850 mb-etara, 2008/10/27 eta 28, 12etan UTC.




Figura 7.4. Precipitación acumulada los días 27 y 28/10/2008.
7.4 irudia. Pilatutako prezipitazioa 2008/12/27 eta 28an.

LLUVIAS PERSISTENTES. 2 Y 3 DE NOVIEMBRE.

Durante la madrugada del domingo comienza a llover en el interior de Álava y en el este de Gipuzkoa, a medida que la borrasca situada en Levante se iba acercando e iba formándose el frente ocluido. Durante la mañana y por la tarde dicho frente se sitúa sobre la mitad oriental del territorio, produciendo precipitaciones de intensidad moderada pero de carácter persistente, que causan grandes acumulaciones de precipitación en la estación de Bidania o incluso en la de Párganos. Una bolsa de aire frío en niveles medios provoca además que las precipitaciones sean en forma de nieve por encima de 1000-1100 metros durante esas horas. Por la noche, la borrasca empieza a tener recorrido marítimo y el viento gira a noroeste; se forman chubascos en el Golfo de Bizkaia e impulsados por la borrasca, llegan a territorio vizcaíno. La borrasca permanece durante la madrugada y las primeras horas del lunes 3 en la desembocadura del río Garona, moviéndose durante la mañana hacia el oeste, por el mar Cantábrico. Ello provoca que el viento pase a ser del oeste y que remitan los chubascos, que a partir del mediodía son débiles y ocasionales, cesando al girar el viento al suroeste debido a la posición más occidental de la borrasca (tabla 8.1).

Una borrasca de 1000 mb situada en Levante a primeras horas del día se mueve hacia Pirineos y se sitúa al final del día en la desembocadura del Garona, formándose un frente ocluido que por la noche se coloca sobre el Golfo de Bizkaia, tras afectar durante las horas vespertinas al este de Gipuzkoa principalmente. Durante el movimiento de la borrasca, el viento en superficie gira, siendo de componente norte durante las horas centrales del día y por la tarde, y a lo largo de la noche del noroeste. Durante la mañana del lunes 3, se mueve junto a la DANA en altura hacia el oeste por el Cantábrico, alejándose del territorio y permitiendo la entrada de aire más templado y seco del oeste y suroeste (figura 8.1).

Durante el domingo día 2, en el nivel de 500 mb la circulación es cerrada, en forma de depresión aislada en altura (DANA). Este embolsamiento de aire frío se extiende por toda la Península. Durante el lunes día 3, la circulación cerrada en altura se desplaza por el Mar Cantábrico de este a oeste. La temperatura en el nivel medio de 850 mb ronda los 2 °C durante todo el episodio, pero baja hasta los 0 °C durante la tarde del domingo 2, sobre todo en el este, lo que, unido a la presencia de aire frío en altura, permite el descenso de la cota de nieve hasta los 1000-1100 metros (figura 8.2).

EURI IRAUNKORRAK. AZAROAREN 2AN ETA 3AN.

Penintsularen ekialdean kokatuta zegoen depresioa eta honi lotutako fronte okluditua hurbiltzen joan ziren neurrian, euria egiten hasi zen Gipuzkoa ekialdean eta Araba barnealdean igande goizaldean. Goizean eta arratsaldean fronte okluditua lurraldearen ekialdean kokatu eta prezipitazio ertain eta iraunkorrek eman ziren, euri kopuru dezentea pilatuz, esate baterako Bidaniako estazioan (Gipuzkoa) eta Paganosen (Arabako Errioxa). Erdi mailako geruzetan isolaturik geratu zen aire masa hotzak 1000-1100 m-ra prezipitazioak elur moduan botatzea ahalbidetu zuen. Gauean, depresioak ipar-mendebaldeko haize hezea ezarri zuen, Bizkaiko Golkoan eraturako zaparradak Bizkaira ere iritsiaraziz. Hilaren 3an, astelehena, goizaldean eta goizean goiz depresioa Garona ibaiaren itsas adarrean kokatu zen, osterantzean kantauri itsasotik mendebaldera eginez. Aldaketa honek, haizea mendebaldetik ezarri zuen eta eguraldiak atertzera egin zuen, eguerditik aurrera tarteka zaparrada arinak bota zituen arren. Depresioak mendebalderanzko bideari eutsi eta haizea hego-mendebaldetik jarri zen erabat atertuz (8.1 taula).

Goizean goiz Penintsularen ekialdean zegoen 1000 mb-ko depresioak, Pirinio alderantz egin eta egunaren amaierarako, jada, Garona ibaiaren itsasadarrean kokatu zen. Depresio honi lotutako fronte okluditua Bizkaiko Golkoan kokatu zen gauean, arratsaldean, batez ere Gipuzkoa ekialdean euria utzi eta gero. Depresioa mendebalderantz mugitu ahala, haizeak iparraldera egin zuen, gauean ipar-mendebaldeko ukitua hartuz. Hilaren 3an, astelehenean, goi geruzetan eratu zen depresio hotz isolatuarekin batera, azaleko depresioak mendebalderanzko bideari eutsi zion, eta gure lurraldean mendebal/hego mendebaldeko haize epel eta lehorragoa sartu zen (8.1 irudia).

Igandean, hilak 2, 500 mb-ko geruzan depresio hotz isolatua eratu zen, Penintsula osoan hedatuz. Depresio hotz isolatu honek kantauri itsasoaren ekialdetik mendebalderako bidea egin zuen. Egoera honek iraun zuen bitartean, 850 mb-ko geruzan 2 °C eta 0 °C (igande arratsaldean) izan ziren batez ere lurraldearen ekialdean. Ondorioz elur-kota 1000-1100 m-ra jaitsi zen. (8.2 irudia).

Estación/ Estazioa	Día 2/hilak 2	Día 3/hilak 3	Precipitación total/ Prezipitazio totala
Mungia	45,9	40,3	86,2
Aixola	54,6	21	75,6
Añarbe	68,6	7	75,6
Mañaria	43,9	30,7	74,6
Leizaran	72	2,1	74,1
Bidania	67,6	5,7	73,3
Aitzu	61,2	11	72,2
Gorbea	55,4	14,5	69,9
Amorebieta	45,6	24,2	69,8
Almike (Bermeo)	35,3	33,9	69,2
Derio	36,8	31,7	68,5
Zaratamo	45,6	21,4	67
Muxika	37,9	29	66,9
Iurreta	56,5	9,4	65,9
Páganos	51,5	13,8	65,3
Oiartzun	54,7	10,2	64,9

Tabla 8.1. Precipitaciones en mm de algunas estaciones de la CAPV.
8.1 taula: Pilatutako prezipitazioa (mm) EAE-ko hainbat estaziotan.




Figura 8.1. Presión a nivel del mar el día 02/11/2008 a las 18 UTC.
8.1 irudia. Presioa itsas mailan, 2008/11/02 18etan UTC.




Figura 8.2. Temperatura y geopotencial a 500 mb, 02/11/2008 a las 18 y 03/11/2008 a las 00 y 06 UTC.

8.2 irudia. Geopotentziala eta isotermak 500 mb-etara, 2008/11/02 18 etan eta 2008/11/03 00 eta 06etan UTC.




Figura 8.3. Precipitación acumulada en mm el día 02/11/2008 y el día 03/11/2008.

8.3 irudia. Pilatutako prezipitazioa (mm) 2008/11/02 eta 2008/11/03an

TEMPORAL. 23-26 NOVIEMBRE.

A lo largo del día 23 se producen precipitaciones frecuentes y abundantes, de intensidad débil a moderada, siendo Gipuzkoa la provincia más afectada, donde los acumulados máximos superan los 40 mm, de forma generalizada se registran en torno a los 20 mm en Gipuzkoa, 15 mm en Bizkaia y en Álava la media ronda los 5-10 mm (tabla 9.1). Durante la tarde de este mismo día se superan los 100 km/h con vientos del noroeste en las estaciones de Bermeo y Oiz (tabla 9.2). Las precipitaciones abundantes continúan durante la jornada del lunes 24, superándose los 60 mm en varias estaciones, como son Arrasate (64 mm) y Otxandio (70,5 mm). En muchos puntos de Bizkaia y Gipuzkoa se superan los 40 mm (tabla 9.1). Las precipitaciones vuelven a tener carácter débil a moderado, aunque se registran numerosas tormentas que van acompañadas de granizo, afectando sobre todo al litoral. Las rachas de viento del noroeste superan los 100 km/h en zonas expuestas, como son los 143 km/h de Oiz y 117 km/h de Punta Galea. También se superan los 80 km/h en zonas no expuestas como son los 85 km/h de Mungia y los 81 km/h en Deusto. A lo largo de día 24 la cota de nieve va descendiendo hasta situarse a últimas horas en torno a los 700-800 m. La altura de ola significativa supera los 3,5 m, alcanzando durante la segunda parte del día los 5-5,5 m. Las precipitaciones registradas durante el día 24, sumadas a las ya recogidas en las jornadas precedentes provoca que los cauces de los ríos aumenten de tal forma, que se superan los niveles de alerta y de inundación en las cuencas del Urumea a su paso por Ereñozu, del Urola en Ibai Eder y del Deba en Oñati (figura 9.4). El día 25 se producen precipitaciones débiles a moderadas, pero con acumulados mucho más pequeños que las jornadas precedentes. La cota de nieve se mantiene gran parte del día sobre los 500 m. La altura de ola significativa de madrugada registra 4-4,5 m, aunque durante el día disminuye hasta situarse por debajo de los 3 m a últimas horas. El día 26 las precipitaciones son débiles y anecdóticas, entre 0 y 1 mm, con una cota de nieve todavía baja, rondando los 500 m, produciéndose heladas debido a la disminución de la nubosidad.

A lo largo de la jornada del domingo 23 de noviembre las altas presiones reinantes durante los días precedentes, con la presencia de un centro de altas presiones sobre el Atlántico, se van retirando. Esto permite que se descuelgue una importante masa de aire frío por Europa, alcanzando de lleno nuestro territorio los días 24 y 25 de noviembre. La masa de aire frío va asociada a una depresión que durante el lunes 24 se sitúa sobre los Países Bajos, cruzándonos un frente frío. La depresión se rellena rápidamente desapareciendo el día 24. Entre las altas presiones y la depresión europea se genera un pasillo de entrada de viento del noroeste, viento predominante durante los primeros días del episodio, ya que durante los días 25 y 26 tenderá hacia el nordeste, favorecido por las altas presiones que se vuelven a imponer en el Atlántico (figura 9.1).

En niveles altos de la atmósfera (500 mb) se alcanzan valores de -31 °C a lo largo del día 24. En las capas bajas (850 mb), en cambio, la entrada de aire frío es más lenta, alcanzando el punto de temperaturas más bajas durante el día 25, con -5 °C (figura 9.2).

DENBORALEA. AZAROAREN 23TIK 26RA.

Azaroaren 23an zituela, prezipitazioak ugariak eta sarriak izan ziren, tarteka gogotik bota zuen gainera. Gipuzkoan jaso ziren pilaketa handienak, 40 mm-tik gora zenbait tokitan, baina batezbestekoz, 20 mm pilatu ziren Gipuzkoan, 15 mm Bizkaian eta 5-10 mm inguru Araban (9.1 taula). Arratsaldean bertan, ipar-mendebaldeko haize boladek 100 km/h abiadura gainditu zuten Bermeo eta Oizeko estazioetan (9.2 taula). Astelehenean, hilak 24an ere, prezipitazio ugariak jaso ziren, zenbait lekutan 60 mm-tik gora (Arrasate 64 mm eta Otxandio 70.5 mm). Gipuzkoako eta Bizkaiko eremu askotan 40 mm baino gehiago pilatu ziren (9.1 taula). Euri zaparrada arin-ertainak, ekaitz eta txingorrarekin batera etorri ziren, batez ere kostaldean. Ipar-mendebaldeko haizea zakar ibili zen, haizeguneetan 100 km/h-tik gorako ufadak neurtu ziren (Oiz 143 km/h eta Punta Galea 117 km/h) eta haizeguneetatik kanpo ere 80 km/h-tik gorako boladak (Mungia 85 km/h eta Deusto 81 km/h) izan ziren. Egun bertan, elur-kotak behera egin zuen 700-800 m. inguruan kokatuz. Itsasoaren egoera zakartu egin zen eta goizean olatuaren altuera adierazgarriak 3.5 m gainditu zuen eta egunaren bigarren partean 5 edo 5.5 m bitartean kokatu zen. Egun bertan eta aurreko egunetan botatako euri kopuru handia zela eta, ibairen emariek ere gora egin zuten nabarmen, alerta maila gainditu eta uholde mailara iritsiz Urumeako arroan (Ereñozu), Urolan (Ibai Eder) eta Debako arroan (Oñati) (9.4 irudia). Hilaren 25ean prezipitazio arin-ertainek eman baziren ere, pilaketak askoz ere txikiagoak izan ziren. Elur-kota ia egun osoz 500 m-ra kokatu zen. Itsasoan, goizaldean olatuaren altuera adierazgarria 4-4.5 m inguruan kokatu zen baina gutxituz joan zen, azken orduetan 3 m. inguruan geratuz. Hilaren 26an ezer gutxi bota zuen, 0 eta 1 mm artean pilatuz, baina elur kotak 500 m inguruan jarraitu zuen. Gainera hodeitza gutxitu zenez izotza ere bota zuen.

Azaroaren 23an, Atlantikoko presio altuak aldentuz joan ziren eta honek, Europara aire masa hotza iristea ahalbidetu zuen. Egoera honek gure lurraldean azaroaren 24 eta 25ean eragin zuen batez ere. Aire masa hotz honi loturiko depresio hotza Herbereetan kokatu zen eta honekin batera fronte hotz batek gure lurraldean harrapatu zuen. Azaroaren 24an presio baxua ahuldu eta desegin egin zen. Egoera honen menpe, ipar-mendebaldeko haize hezea nagusitu zen denboralearen lehen egunetan, osterantzean, hilaren 25ean eta 26an ipar-ekialdera eginez, Atlantikoan presio altuen nagusitzeagatik (9.1 irudia).

Atmosferako goi geruzetan (500 mb), astelehenean, hilak 24, -31 °C-ko tenperatura lortu zen. Maila baxutan (850 mb) aire hotza polikiago sartu zen eta tenperatura baxuenak, asteartean, hilak 25 zituela lortu ziren, -5 °C-rekin. (9.2 irudia).




Figura 9.1. Presión a nivel del mar días 23, 24 y 25/11/2008 a las 12 UTC.
9.1 irudia. Presioa itsas mailan, 2008/11/23, 24 eta 25 12etan UTC.




Figura 9.2. Temperatura y geopotencial a 500 y 850 mb. 23, 24 y 25/11/2008 a las 18 UTC.
 9.2 irudia. Geopotentziala eta isotermak 500 eta 850 mb-etara, 2008/11/23, 24 eta 25 18etan UTC.






Figura 9.4. Nivel de la lámina de agua de Oñati, Ereñozu e Ibai Eder. 9.4 irudia. Ur-maila Oñati, Ereñozu eta Ibai Ederren.




Figura 9.3. Precipitación acumulada días 23, 24 y 25/11/2008.
9.3 irudia. Pilatutako prezipitazioa 2008/11/23tik 25era.

Estación/ Estazioa	Día 23/hilak 23	Día 24/hilak 24	Día 25/hilak 25	Precipitación total/ Prezipitazio totala (mm)
Arrasate	21,8	67,3	14,3	103,4
Aitzu	19,4	69,2	11,6	100,2
Andoain	26	68,2	0,8	95
Aixola	18,1	59,5	17,3	94,9
San Prudentzio	17,2	57,2	15,9	90,3
Berastegi	33,7	54,9	1,6	90,2
Añarbe	26	62,8	0,4	89,2
Oñati	17,1	57	14,5	88,6
Gorbea	15,3	64	8,5	87,8
Aranguren	18,1	43,1	26	87,2
Leitzaran	29,3	56,4	1,4	87,1
Otxandio	17,9	56,1	9,4	83,4
Matxinbenta	26,8	50,9	5,6	83,3
Zegama	22,3	57,3	3,2	82,8
Balmaseda	13	45,3	23,6	81,9

Tabla 9.1. Precipitación acumulada.
9.1 taula. Pilatutako prezipitazioa.

NIEVE. 9 Y 10 DE DICIEMBRE.

El día 9 se producen chubascos, especialmente a primeras horas y durante la tarde y noche con el paso de un frente frío, con precipitaciones esporádicas en las horas centrales del día. La cota de nieve desciende desde los 1000-1200 m, hasta situarse en torno a los 700 m al final del día, aunque las precipitaciones no son muy cuantiosas. Al contrario que la jornada del día 10 cuando se producen precipitaciones muy abundantes en el interior de Gipuzkoa, con registros por encima de los 30 mm. Precisamente es aquí donde la cota de nieve desciende hasta su valor más bajo, ya que local y puntualmente se coloca en torno a los 200-300, aunque la cota de nieve de forma generalizada está en torno a los 400-500 m. Al descenso puntual de la cota de nieve colabora de forma sustancial el desarrollo de tormentas, que van acompañadas de granizo. Los días 9 y 10 la altura de ola significativa supera los 3.5 m en la estación oceanográfica de Pasaia, con una máxima de 3.8 m durante la madrugada del día 10.

En superficie un potente anticiclón situado en el Atlántico unido a una depresión mediterránea genera un flujo de componente norte que favorece la llegada de aire frío. A lo largo de la tarde del día 9 pasa un frente frío. Durante el día 10 el anticiclón desaparece dejando de bombear aire frío del norte de Europa (figura 10.1).

A lo largo de la jornada del día 9, una vez que se forma el pasillo de flujo de componente norte, se desliza hacia el sur una masa de aire frío. Esta masa nos afecta al final de la jornada del día 9 y durante el 10. En niveles de 500 mb se alcanzan temperaturas de $-30\text{ }^{\circ}\text{C}$ hacia el este de Gipuzkoa, mientras que en 850 mb las temperaturas más bajas son en torno a $-5\text{ }^{\circ}\text{C}$ durante la tarde del día 9 (figura 10.2).





Figura 10.1. Presión a nivel del mar días 09 y 10/12/2008 a las 12 UTC.

ELURTEA. ABENDUAREN 9TIK 10ERA.

Abenduaren 9an, goizean goiz eta arratsaldean zein gauean euria egin zuen fronte hotz bat zela medio. Eguerdietan, euri zaparradak tartekatuagoak izan ziren. Elur mailak behera egin zuen, 1000-1200 m-tik 700 m-ra jaitsiz egunaren amaieran, nahiz eta prezipitazio oso ugariak ez izan. Hilaren 10ean, aldiz, prezipitazio ugariak (30 mm-tik gora) bota zituen Gipuzkoa barnealdean. Elur maila, oro har, 400-500 m-ra kokatu zen. Gipuzkoako zenbait eremuetan, ekaitz guneetan batez ere, elurrak 200-300 m-ra egin zuen eta txingor-zaparradak ere eman ziren. Itsasoko egoera zakarrak, hilaren 9an eta 10ean, 3.5 m-tik gorako olatuak altxatu zituen Pasaiaiko estazio ozeano-meteorologikoan, altuera adierazgarri maximoa 3.8 m-koa neurtuz, hilaren 10ean goizaldean.

Lurrazalean, Atlantikoan antizikloi indartsu bat kokatu zen eta Mediterraneoan, aldiz, presio baxuak genituen. Egoera honek, iparraldetik aire hotza bidali zuen gure lurraldera. Honi, hilaren 9an igarotako fronte hotza gehitu beharra zaio. Hilaren 10ean antizikloia desagertu egin zen, Europa iparraldetik zetorren fluxu hotza ekarriz (10.1 irudia).

Abenduaren 9ak aurrera egin ahala, eta iparraldeko fluxua nagusituz joan zen. Penintsularantz aire masa hotz bat hurbilduz joan zen, egun bertan, gauean, gure latitudera iritsiz. Hilaren 9an, 500 mb-ko geruzan $-30\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ko temperatura eman zen Gipuzkoa ekialdean, eta arratsaldean 850 mb-ko mailan $-5\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ko temperatura (10.2 irudia).



10.1 irudia. Presioa itsas mailan, 2008/12/09 eta 10 12etan UTC.




Figura 10.2. Temperatura y geopotencial a 500 y 850 mb. 09/12/2008 a las 12, 10/12/2008 a las 00 y 12 y 11/12/2008 a las 00 UTC.
 10.2 irudia. Geopotenziala eta isotermak 500 eta 850 mb-etara, 2008/12/09 12etan, 2008/12/10 00 eta 12etan eta 2008/12/11 00etan UTC.




Figura 10.3. Precipitación acumulada 09/12/2008.
10.3 irudia. Pilatutako prezipitazioa 2008/12/09an.




Figura 10.4. Precipitación acumulada 10/12/2008.
10.4 irudia. Pilatutako prezipitazioa 2008/12/10ean.

NIEVE. 13-15 DICIEMBRE.

Durante el día 13 se producen precipitaciones por la mañana y de forma más generalizada a lo largo de la tarde, estos chubascos son débiles a moderados, a lo largo de todo el día se recogen hasta 20 mm en la zona central. Comienza a nevar en puntos por encima de los 700 m, bajando al final del día la cota hasta los 500 m (figura 11.4). Nivel en el que se mantiene durante la jornada del día 14, con chubascos ocasionales y débiles durante la primera mitad, siendo más intensos a lo largo de la tarde-noche, cuando se producen chubascos tormentosos acompañados de granizo. La precipitación está más centrada hacia el Cantábrico con máximos acumulados en torno a 20 mm (figura 11.5). El día 15 de madrugada continúan los chubascos moderados con una cota de nieve que se mantiene en cotas bajas y que a lo largo de la jornada, con la retirada del aire frío, va ascendiendo hasta los 1000-1100 m al final del día (figura 11.6). Después de la madrugada las precipitaciones van remitiendo y teniendo carácter más esporádico.

El día 13 en superficie atraviesa la Península un frente frío asociado a un centro de bajas presiones situado al norte de las Islas Británicas, dicha borrasca se desplaza hacia Francia durante la jornada del día 14. A lo largo del día 15 una depresión mediterránea unida al anticiclón de las Azores forma un pasillo de vientos de componente norte (figura 11.1).

La colocación de las depresiones y del anticiclón de las Azores favorece la entrada de aire frío en las capas medias y altas de la atmósfera, de forma especial a nivel de 500 mb (-34 °C) y durante la jornada del 14 y 15. En el nivel de 850 mb la entrada de aire es menos significativa. Todo esto provoca que la cota de nieve no descienda a niveles muy bajos pero sí que la inestabilidad reinante sea alta. Esta situación termina con un estrangulamiento de la masa de aire frío quedando aislada a partir del día 15 (figuras 11.2 y 11.3).

ELURTEA. ABENDUAREN 13-15EAN.

Abenduaren 13an goizean, han-hemenka euria egin zuen eta arratsaldean zaparrada arin-ertainak lurralde osora zabaldu ziren, barnealdeko zenbait tokitan 20 mm pilatuz. Egunaren hasieran elur-maila 700 m-ra bazegoen ere, eguna amaitzerako 500 m-ra jaitsi zen (11.4 irudia). Hilaren 14an ere maila berdinean jarraitu zuen elurrak eta gainera, goizean zaparrada arin ertainak bota zituen, eta arratsalde-gau partean tarteka gogotik bota zuen, tartean trumoia eta txingorra zutela, 20 mm inguru pilatuz kantauri isurialdeko zenbait tokitan (11.5 irudia). Hilak 15 zituenean, goizaldean oraindik zaparrada arin ertainak bota zituen eta elur-kotak maila baxuetan jarraitu zuen. Egunak aurrera egin ahala, aire hotzak atzera egin zuen eta elur maila 1000-1100 m-ra kokatu zen egunaren amaieran (11.6 irudia). Goizaldea igarotakoan zaparradek maiztasuna eta indarra galdu zuten.

Hilaren 13an, lurrazalean Britainia Handiko iparraldean depresio batek zuen gunea, honi lotutako frontea guregana iritsi zen. Hilak 14 zituenean depresioa Frantziarantz mugitu zen. Hilaren 15ean, Mediterraneoko depresioak eta Azoreetako antizikloiak iparraldeko haizea eragin zuten (11.1 irudia).

Hilaren 14 eta 15ean, depresioen eta Azoreetako antizikloiaren kokapenak, atmosferako goi geruzetan (500 mb-etan -34 °C) eta maila baxuetan (ahulagoa izan bazen ere) aire hotzaren sarrera ahalbidetu zuen. Aire masa hotzak ezegonkortasun handia eragin zuen, elur maila gehiegi jaitsarazi ez bazuen ere. Hilaren 15etik aurrera, aire masa hotza isolatu egin zen (11.2 eta 11.3 irudiak).




Figura 11.1. Presión a nivel del mar días 13, 14 y 15/12/2008 a las 12 UTC.
11.1 irudia. Presioa itsas mailan, 2008/12/09 eta 10 12etan UTC.




Figura 11.2. Temperatura y geopotencial a 500 mb. 13/12/2008 a las 12, 14/12/2008 a las 00 y 12 y 15/12/2008 a las 00 y 12 UTC.
 11.2 irudia. Geopotentziala eta isotermak 500 mb-etara, 2008/12/13 12etan, 2008/12/14 00 eta 12etan eta 2008/12/15 00 eta 12etan UTC.




Figura 11.3. Temperatura y geopotencial a 850 mb. 13/12/2008 a las 12, 14/12/2008 a las 00 y 12 y 15/12/2008 a las 00 y 12 UTC.
 11.3 irudia. Geopotentziala eta isotermak 850 mb-etara, 2008/12/13 12etan, 2008/12/14 00 eta 12etan eta 2008/12/15 00 eta 12etan UTC.




Figura 11.4. Precipitación acumulada día 13/12/2008.
11.4 irudia. Pilatutako prezipitazioa 2008/12/13an.




Figura 11.5. Precipitación acumulada día 14/12/2008.
11.5 irudia. Pilatutako prezipitazioa 2008/12/14an.




Figura 11.6. Precipitación acumulada día 15/12/2008.
11.6 irudia. Pilatutako prezipitazioa 2008/12/15ean.




Figura 11.7. Precipitación total acumulada los días 13, 14 y 15/12/2008.
11.7 irudia. Pilatutako prezipitazioa 2008/12/13tik 15era.